

## **2014KO APIRILAREN 4AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Laua

**HILABETEA:** Apirila.

**URTEA:** Bi mila eta hamalaua.

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko zortziak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)

**MAHAIBURUA:** Koldo Agirre Mujika

**BILDUA:** M<sup>a</sup> Mar Celaya González

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

**ETORRI GABEA:** Aitor Aldasoro Iturbe

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2014ko otsailaren 28ko aktaren onespena.

2014ko otsailaren 28ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

### **2.-ZERBITZUAK ESLEITZEA**

Igartzako Monumentu Multzoaren kudeaketa eta ustiapena esleitzea.

Kontratazio Mahaiaren ondorengo erabaki-proposamenaren berri eman da:

#### **“AURREKARIAK**

**1.-** 2014ko otsailaren 10ean, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, Igartzako multzo monumentalaren kudeaketa eta ustiaketa kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Licitazio prezioa, 55.000,00 €tan gehi BEZ urteko finkatu zen eta egikaritze epea bi urtekoa ezartzen da. Epe hau luzagarria izango da urte beteko bi urtealdietan, gehienez ere.

**2.-** Deialdia, 2014ko otsailaren 13an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 15 eguneko epean, lizitaziora zazpi proposamen aurkeztu ziren.

**3.-** Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, enpresa batek bakarrik aurkeztu zituen 1.kartazaleko dokumentu guztiak. Hori dela eta, sei enpresei errekerimendua egin zitzairen dokumentuak osatzeko eta sei horietatik, bost enpresek osatu zituzten dokumentuak.

**4.-** Martxoaren 14an ekintza publikoan, proposamen teknikoari nahiz automatikoki baloratzen ez diren esleipen-irizpideei buruzko kartazala ireki zen, hain zuzen ere, Pleguaren 5.1 klausulan ezarritakoak, hau da:

- Jarduera-memoria: 20 puntu.
- Hobekuntzak: 10 puntu.

**5.-** 2014ko martxoaren 25eko datarekin Kultur teknikariak ondorengo txostenaren berri eman du eta jarraian aipatzen den puntuazioa ematea erabaki da:

**I.- Jarduera-memoriari dagokionean:**

**1.- Igartzako Monumentu Multzoaren eta bertan ematen diren zerbitzuen hedapena eta publizitatea.**

ON-TIME	ERRO	ARAZI	ALDABE	OIANA ORTEGA IBON CANO	ANDER ARRESE EÑAUT TOLOSA
<p>- Aipatzen dituzten hainbat estrategia betebeharretan sartzen ditugu eta egin beharrekoak dira.</p> <p>- Sare sozialak eta mailing-ak egitea planteatzen dute.</p> <p>- Gehien baloratzen duguna, ETBrekin zenbait programaren grabaketa adostuko luketela eta zeharkako publizitatea egingo luketela horrela.</p>	<p>- Aipatzen dituzten hainbat estrategia betebeharretan sartzen ditugu eta egin beharrekoak dira.</p> <p>- Sare sozialak eta mailing-ak egitea planteatzen dute.</p> <p>- Eta komunikabideetan oihartzuna ematea Igartzari.</p>	<p>- Komunikazio-sare esanguratsua daukate.</p> <p>- Planteamendu zehatza eta egingarria da berea.</p> <p>- Igartzaren kultur erreferentzialtasuna edota marka indartuko lukete.</p>	<p>- Aipatzen dituzten hainbat estrategia betebeharretan sartzen ditugu eta egin beharrekoak dira.</p> <p>- Gehien baloratzen duguna, zerbitzuen karta eskainiko dutela; lehiaketak egingo dituztela sare sozialetan, sarrerak zozketatuz; kazetariei bisitak eskainiko dizkietela, komunikabideetan zeharka sartzeko.</p>	<p>- Aipatzen dituzten hainbat estrategia betebeharretan sartzen ditugu eta egin beharrekoak dira.</p> <p>- Gurasoei esku-orriak banatuko dizkiete Igartzako eskaintzarekin.</p>	<p>- Aipatzen dituzten hainbat estrategia betebeharretan sartzen ditugu eta egin beharrekoak dira.</p> <p>- Gehien baloratzen duguna, ahoz-ahoko zabalkundea egingo dutela eta bultzatuko dutela kanal ezberdinak erabiliz; call-centre zerbitzua jarriko dutela 10etatik 22etara; ha2a.net webgunea berrindartuko dutela; eta paperaren erabilera optimizatuko dutela hedapena eta publizitatea egiteko.</p>
3 PUNTU	2 PUNTU	3 PUNTU	3,5 PUNTU	2 PUNTU	3 PUNTU

## 2.- Multzoaren bidez udalerrriaren turismo sustapena hobetzeko mekanismoa

ON-TIME	ERRO	ARAZI	ALDABE	OIANA ORTEGA IBON CANO	ANDER ARRESE EÑAUT TOLOSA
<p>- Informazio liburuxka argitaratuko lukete Igartzako zerbitzu eta eskaintzarekin.</p> <p>- Turismo guneetan Multzoaren presentzia bermatuko lukete.</p> <p>- Aldi berean, Industriaren Ibilbidean sartuko lukete.</p> <p>- Errotan bulegoa jarriko lukete eta ordutegia ere zehazten dute.</p>	<p>- Oro har, Igartzaren eskaintza turistikoa potentzialki garatuta daukate.</p> <p>Horretarako, sare turistiko garrantzitsua daukate atzean.</p> <p>- Aurreikuspenak ere egiten dituzte.</p> <p>- Harrera eta arreta eskainiko lukete, bai kanpokoentzat eta bai bertakoentzat.</p> <p>Ordutegia ere zehazten dute.</p> <p>- Bere proposamenean, tasak aldatzea sartu dute, baina hau ezinezkoa da, Udalaren araudia eta ordenantza fiskala daudelako gainera.</p> <p>- Abio bidai-agentziarekin pakete turistikoak egingo lituzkete.</p>	<p>- Ez dute ezer berririk eskaintzen.</p> <p>- Gainera, aipatzen dituzten hainbat alderdi betebeharretan sartuta daude.</p>	<p>- Bisiten eskaintza aberastea proposatzen dute bisita bereziekin: industria sektorearentzat, sagardoarekin lotutako bisitak, dastaketak eskainiz, Goierriko sagardotegiekin paketeak sortuz...</p> <p>- Igartza Multzoko hainbat elementu gehiago ustiatuko lituzkete, errota eta tresneria hidraulikoa, ura, egurra, burdina, Erdi Aroko bidea...</p> <p>- Igartza Tribalaren jokoan sartuko lukete.</p>	<p>- Aipatzen duten gauza berri bakarra da, enprekin hitzarmenak egingo lituzketela Igartza erabiltzeko.</p> <p>- Gainerako hainbat puntu betebeharretan sartuta daudenak dira.</p>	<p>- Inguruko museoekin pakete turistikoak egingo lituzkete.</p> <p>- Bisitariak ez lirateke hartzaile huts izango, Igartzan eragile eta sortzaile izatera pasa araziko lituzkete. Eta Multzoaren estrategia diferentziala hori lortu ahal izateko "jolasa" izango litzateke.</p> <p>- Turismo katalandarra erakartzeko lan-sarea daukate lagun.</p>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Idiazabal Gaztaren Ibilbidean GR283 integratuko lukete Igartza.</li> <li>- Done Jakue bidearekin ere lotura edo harremana sakonduko lukete.</li> </ul>				
2,87 PUNTU	5 PUNTU	2 PUNTU	3,5 PUNTU	2 PUNTU	3 PUNTU

**3.- Antolatzea aurreikusten diren jarduera eta ekitaldiak, proaktibotasuna bultzatzen duen kudeaketa bat gauzatze aldera, besteak beste, bisita gidatuei eta ospakizun zibilei bultzada emanaz eta erakusketa aretoaren erabilera indartuz, kultura-maila duin batekin.**

ON-TIME	ERRO	ARAZI	ALDABE	OIANA ORTEGA IBON CANO	ANDER ARRESE EÑAUT TOLOSA
- Ez dute gauza berririk eskaintzen.	- Alderdi hau garatu gabe daukate.	- Ez dute zehazten Igartza nola beteko luketen urte osoan zehar. - Ospakizun zibilak ez dituzte landu.	- Oso ondo ezagutzen eta jasotzen dituzte herriko kultur sarea, egoera eta argazkia. - Herriko kultur sare horretan eta kanpoan ere harremanak dituzte eta parte-hartzaile ere badira.	- Ez dute ezer aipagarririk eskaintzen.	- Herriko eragileak elkartu, batu eta balioan jartzeko proiektua aurkeztu dute. - Honi gehitzen badiogu, Igartza proiektu bezala irudikatzen dutela eta inguruko eragile estrategikoen inplikazioarekin lan egin nahi dutela proiektu hori aurrera ateratzeko, Udalaren ikuspegiarekin guztiz bat datorren filosofia aurkeztu dute bere proposamenean. - Bestalde, Udako Ikastaro batzuk Igartzara ekartzeko hitzarmenak egingo lituzkete.
1,5 PUNTU	0 PUNTU	0,77 PUNTU	4,5 PUNTU	1,5 PUNTU	3,5 PUNTU

#### 4.- Kontratuaren helburuak egikaritzeko bitarteko pertsonalen organigrama

ON-TIME	ERRO	ARAZI	ALDABE	OIANA ORTEGA IBON CANO	ANDER ARRESE EÑAUT TOLOSA
<p>- Planteatzen duten organigrama ez dator bat pleguetan Udalak zehazten duenarekin.</p> <p>- Bestalde, langile bakoitzaren funtzioak edo betebeharrak ez dituzte definitzen.</p> <p>.</p>	<p>- Ez organigrama ez funtzioak, ez dituzte zehazten.</p> <p>.</p>	<p>- Bai lanpostuak eta bai bakoitzaren ardurak oso ondo definitu dituzte.</p> <p>- Eta bakoitzaren betebeharrak zerrendatzen ere saiatu dira.</p>	<p>- Esleipendunak Udalarekin izango lukeen lan-harremana ondo jasotzen dute.</p> <p>- Baina langile bakoitzaren betebeharrak ez dituzte zehaztu.</p>	<p>- Esleipendunaren eta Udalaren arteko koordinazioa jaso dute.</p> <p>- Bestetik, aipatzen duten lan-taldea zein izango litzatekeen ez dute guztiz osatu.</p> <p>- Eta lankide bakoitzaren ardurak ere ez dituzte zehaztu.</p> <p>.</p>	<p>- Langile bakoitzaren ardurak ondo jasotzen dituzte.</p>
1 PUNTU	0,5 PUNTU	1,75 PUNTU	1,5 PUNTU	1,25 PUNTU	1,5 PUNTU

5.- Esleipenduna pertsona juridikoa izatea gertatuko balitz, zerbitzuari atxikitako pertsona edo pertsonak izendatu beharko ditu.

ON-TIME	ERRO	ARAZI	ALDABE	OIANA ORTEGA IBON CANO	ANDER ARRESE EÑAUT TOLOSA
- Zerbitzuari atxikitako pertsona edo pertsonak izendatu dituzte.	- Zerbitzuari atxikitako pertsona edo pertsonak izendatu dituzte.	- Zerbitzuari atxikitako pertsona edo pertsonak izendatu dituzte.	- Zerbitzuari atxikitako pertsona edo pertsonak izendatu dituzte.	- Zerbitzuari atxikitako pertsona edo pertsonak izendatu dituzte.	- Zerbitzuari atxikitako pertsona edo pertsonak izendatu dituzte.
1 PUNTU	1 PUNTU	1 PUNTU	1 PUNTU	1 PUNTU	1 PUNTU

6.- Bereziki baloratuko da tituluak edota esperientzia profesionala izatea arlo hauetan: turismoan, enpresen administrazioan eta kudeaketan...

ON-TIME	ERRO	ARAZI	ALDABE	OIANA ORTEGA IBON CANO	ANDER ARRESE EÑAUT TOLOSA
- Ikus-entzunezkoen komunikazioa eta beste ikasketa batzuk.	- Giza-Zientziak enpresan. - Zuzenbidea. - Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza.	- Magisteritza. - Historia eta Kultur Ondarea. - Historia. Eta beste ikasketa batzuk.	- Barne Diseinua eta Turismoarekin lotutako ikastaroak. - Kudeaketarako Informatika eta Turismoarekin lotutako ikastaroak. - Turismo Diplomatua eta Turismoarekin	- Lehen Hezkuntzako Irakasle gradua eta beste ikasketa batzuk. - Elektrizitatean eta Elektronikan Teknikari Laguntzailea eta beste ikasketa	- Arkeologia. - Ikus-entzunezkoak. .



			<b>lotutako beste ikastaroak.</b> <b>- Administrazio eta Finantzetan Goi Mailako Teknikaria.</b> <b>- Ingurumen Zientziak.</b> <b>- Informatika Sistemetako Administraziorik Goi Mailako Teknikaria.</b> <b>- Administrazio eta Kanpo Merkataritza. Eta beste ikasketak batzuk.</b>	<b>batzuk.</b>	
1 PUNTU	2 PUNTU	1 PUNTU	2 PUNTU	1 PUNTU	0,25 PUNTU

## II.- Hobekuntzen atalari dagokionean:

### 1. Bisita libreak egiteko aukera (audiotourrak, QR bidezkoak...)

ON-TIME	ERRO	ARAZI	ALDABE	OIANA ORTEGA IBON CANO	ANDER ARRESE EÑAUT TOLOSA
<b>- Subrogazioa eskatzen dute 5 urterako eta Udalak, pleguak argitaratu ziren baldintzetan, ezin du hori eskaini. - Gainera, edukietan inbertituko lukete eta hardware-an Udalak egin beharko luke. - QR bidez Igartza Monumentu Multzoa atalka bisitatzeko aukera jarriko lukete.</b>	<b>- Ez dute ezer aipatzen puntu honetan.</b> .	<b>- QR bidezko bisitak egiteko aukera jarriko lukete. - Smartphone eta Tablet gailuentzako gida aterako lukete. - Antzerki-bisitak eskainiko lituzkete.</b>	<b>- QR bidezko bisitak egiteko aukera jarriko lukete.</b>	<b>- QR bidezko bisitak egiteko aukera jarriko lukete.</b>	<b>- QR bidezko bisitak egiteko aukera jarriko lukete.</b>
0,5 PUNTU	0 PUNTU	1 PUNTU	0,5 PUNTU	0,30 PUNTU	0,30 PUNTU

**2. Erabiltzaileen eta bisitarien asebetetze maila jasoko duen orria.**

ON-TIME	ERRO	ARAZI	ALDABE	OIANA ORTEGA IBON CANO	ANDER ARRESE EÑAUT TOLOSA
<p><b>- Bi inkesta egingo lituzkete: eremu monumentalaren ingurukoa bata. Eta bestea, kontserbazioa eta garbiketa eta langileen profesionaltasunari buruzkoa.</b></p>	<p><b>- Inkestak aipatzen dituzte, kudeaketan hobetzeko helburuarekin pasako lituzketenak.</b></p>	<p><b>- Cliker bidezko ebaluaketa sistema erabiliko lukete urruneko inkestak egiteko.</b>  <b>- Euskalit Bikaintasunerako Euskal Agentziarekin elkarlanean lan egingo lukete.</b>  <b>- Udalari hileko txostenak, hiru hileko memoriak eta urteko azken memoria emango lizkiokete.</b></p>	<p><b>- Gogobetetze inkestak egingo lituzkete, bai zuzenekoak eta bai on-line bidezkoak.</b>  <b>- Urte eta erdira lortzeko helburua Q-a jartzen dute. Eta horren ondoren, bikaintasunaren bila joango lirateke.</b>  <b>- Etengabeko hobekuntzaren atzetik lan egingo lukete.</b></p>	<p><b>- Ez dute ezer zehazten honen inguruan.</b></p>	<p><b>- Webgunearen bidez jasoko lituzkete kexak, iradokizunak, iritziak eta abar. Kontsulta eta iradokizun orria eransten dute. Eta gero hori Kultur Mahaira bideratuko lukete.</b>  <b>- Etengabeko hobekuntzaren atzetik lan egingo lukete.</b></p>
0,50 PUNTU	1 PUNTU	1 PUNTU	1 PUNTU	0 PUNTU	0,5 PUNTU

### 3. Errotan, herriko edota Goierriko artisau produktuen salmenta.

ON-TIME	ERRO	ARAZI	ALDABE	OIANA ORTEGA IBON CANO	ANDER ARRESE EÑAUT TOLOSA
<p>- Denda Txikia deitzen dutena jarriko lukete. Bertan merchandising produktuak eta bertakoak salduko lituzkete.</p>	<p>- Salmenta puntua jarriko lukete, artisauen eta bertako produktuekin. Salmenta puntu hau egokitzeko lanak bere gain hartuko lituzketela diote. - Proposamen zehatza egiten dute.</p>	<p>- Tokiko produktoreei irekiko liekete puntu hau. Hau da, Goierriko elkarte eta enprekin elkarlanean arituko lirateke. - Esperientzia dute zeregin hauetan.</p>	<p>- Astearteko azokako nekazariekin elkarlanean arituko lirateke. Horretaz gain, artisau produktuak eta merchandising-are salduko lukete. - Dendak bere agenda izango luke: artisauak bertan arituko lirateke lanean eta hilean behin artisaugintzarekin lotutako tailer bat emango litzateke dendan.</p>	<p>- Salmentan jarriko lituzketen produktu batzuk aipatzen dituzte.</p>	<p>- Salmentan jarriko lituzketen produktu batzuk aipatzen dituzte.</p>

1 PUNTU	2,02 PUNTU	1,5 PUNTU	2 PUNTU	0,40 PUNTU	0,40 PUNTU

**4. Burdinolan hileta zibilak egiteko beharrezko protokolo, zerbitzu eta baliabideen prestaketa.**

ON-TIME	ERRO	ARAZI	ALDABE	OIANA ORTEGA IBON CANO	ANDER ARRESE EÑAUT TOLOSA
- Protokolo antzeko bat aurkezten dute, nahiz eta bere planteamenduak Araudian aldaketak ekarriko lituzkeen.	- Ez dute ezer aipatzen puntu honetan.	- Ez dute inolako protokolorik zehazten.	- Ez dute inolako protokolorik zehazten.	- Ez dute ezer aipatzen puntu honetan.	- Hiletan kasuan, aretoa doan utziko lukete ospakizunerako. - Oiarbide ehortzetxearekin elkarlanean arituko lirateke. - Familien eskura hainbat zerbitzu jarriko lituzkete.
0,75 PUNTU	0 PUNTU	0 PUNTU	0 PUNTU	0 PUNTU	0,55 PUNTU

### 5. Igartzako baratza eta autokonposta proiektua.

ON-TIME	ERRO	ARAZI	ALDABE	OIANA ORTEGA IBON CANO	ANDER ARRESE EÑAUT TOLOSA
<p>- Baratza jasangarria jarriko lukete errota aurrean.</p> <p>- Belar-meta bat ere bai.</p> <p>- Eta horretaz gain sagarrondo batzuk eta hondarribi zuriak landatuko lituzkete. Azken hauek, bertako txakolina egiteko helburuarekin.</p> <p>- Konpostaren gaia Sasietaekin lotuko lukete.</p>	<p>- Ez dute ezer aipatzen puntu honen inguruan.</p>	<p>- Aurkezten duten planteamenduak filosofia polita dauka atzean: landatutako produktuek informazioa edukiko lukete ondoan. Honekin eta adituekin, berariaz sortutako unitate didaktikoekin, herritarren sentsibilizazioan eragin nahiko lukete.</p> <p>- Oro har, gune bizia eta mugimenduan dagoena jarriko lukete ikusgai Igartza kanpoaldean.</p> <p>- Bestetik,</p>	<p>- Baratza ekologikoa eskaintzen dute. Zainketa egingo lukete.</p> <p>- Konposgunea ere jarriko lukete.</p> <p>- Eta herritarrei, gai honen inguruko tailerrak eta formakuntza eskainiko litzaieke.</p>	<p>- Baratza eta lorategia jarri eta zainduko lituzkete. Garaian garaiko produktuekin eta landareekin osatuta.</p> <p>- Autokonposta, Sasietaekin harremanean garatuko lukete.</p>	<p>- Baratzaren mantenua eskaintzen dute; auzolanean egingo lukete.</p>

		autokonpostarako ontziak jarriko lituzkete.			
0,50 PUNTU	0 PUNTU	2 PUNTU	2 PUNTU	0,25 PUNTU	0,25 PUNTU

**6. Erabiltzaileen zein herriko eragileen, elkarte sozio-ekonomikoen eta kulturalen onurarako diren ekimenak.**

ON-TIME	ERRO	ARAZI	ALDABE	OIANA ORTEGA IBON CANO	ANDER ARRESE EÑAUT TOLOSA
- Igartza auzoko festetan, ekintza bereziak antolatuko lituzkete Multzoan. - Hainbat lan, Gureak Taldearekin elkarlanean burutuko lituzkete,	- Ikuspegi turistikotik landutako proposamena da berea, arlo kulturala ez baitute garatu.	- Ez dute proiektu kulturala landu.	- Ez dute proiektu kulturala landu.	- Igartzaren ikuspegi ezberdin bat aurkeztu dute, balio erantsi handikoa: herrian integratua, herriari irekia eta herrian parte-hartzailea. Horren	- Igartzaren ikuspegi ezberdin bat aurkeztu dute, balio erantsi handikoa: herrian integratua, herriari irekia eta herrian parte-hartzailea. Horren

<p>integrazio soziala bultzatuz. - Goierri osoko elkarteekin hitzarmenak sinatzen saiatuko lirateke.</p>				<p>ondorio da proiektuaren balio kulturala eta identitarioa; bide batez, turismoa erakartzeko guztiz baliagarria. - Deskontuak eskainiko lituzkete; baita elbarrientzat sarrerak erreserbatu ere. - Kafe-tertuliak antolatuko lituzkete gai ezberdinen inguruan. - 3. adinekoen bizipenak balioan jarri ekimen ezberdinen haritik. - Azoka ezberdinak antolatuko lituzkete; Stock Azoka Igartzara ekarriko lukete.</p>	<p>ondorio da proiektuaren balio kulturala eta identitarioa; bide batez, turismoa erakartzeko guztiz baliagarria. - Igartzako ateak zabalik edukitzea eskaintzen dute, sinbolikoki Igartza herriari irekia dagoela adieraziz. - Tailer mota ezberdinak antolatuko lituzkete: %80a freemium motakoa, herritar ororentzat eta doakoak; eta premium motakoak, puntako adituek emaniko formakuntza saioak. - Udako ikastaroak ekarriko lituzkete Igartza, EHU eta MU unibertsitateekin hitzartuta. - Usurbe Antzokiarekin ere elkarlana sendotuko lukete.</p>
--	--	--	--	--	---



					<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urtaro bakoitzaren hasieran, freemerkatua izango litzateke Igartzan.</li> <li>- Igartzako ezaugarriak balioan jartzeaz gain, ikertu ere egingo lituzkete.</li> <li>- Herriko gazteengana hurbildu eta gonbidatu egingo lituzkete.</li> <li>- Diru-iturriak kudeatzeko sistema interesgarriak proposatzen dituzte: azpikontratutako zerbitzuen %15 Igartza hobetzeko kutxan jarriko lukete; urteko irabazien %25a ere bai; inguruko enpresei gastu sozialetarako bideratzen duten dirutik zati bat Igartzarako eskatuko litzaieke.</li> </ul>
1,5 PUNTU	1,5 PUNTU	0 PUNTU	0 PUNTU	0,52 PUNTU	2,5 PUNTU

6.- 2014ko apirilaren 2an, lizitatzailleek aurkeztutako proposamen ekonomikoak publikoki ireki ziren, emaitza ondorengo izanik:

<b>ENPRESAK / EMPRESAS</b>	<b>Eskainitako prezioa /precio ofertado</b>	<b>Puntuak / puntos</b>
ON TIME EKOIZPENAK, S.L.	55.000,00 € + BEZ/IVA	27,27
ERRO KOOP. ELKARTE TXIKIA	55.000,00 € + BEZ/IVA	27,27
ARAZI IKT, S.L.	52.800,00 € + BEZ/IVA	28,41
ALDABE KOOP. ELKARTEA	53.956,01 € + BEZ/IVA	27,80
IBON CANO GARMENDIA + OIANA ORTEGA ARIN	50.000,00 € + BEZ/IVA	30
UTE SUHAR ARKEOLOGIA + EÑAUT TOLOSA	51.924,00 € + BEZ/IVA	28,89

Esleipen irizpide bakoitzeko lizitatzailleek lortutako puntuazioen batuketa egin ondoren, emaitza ondorengo da:

<b>EMPRESAK</b>	<b>MEMORIA</b>	<b>HOBEKUNTZAK MEJORAS</b>	<b>PROPOSAMEN EKONOMIKOA PROPUESTA ECONÓMICA</b>	<b>GUZTIRA TOTAL</b>
ON TIME EKOIZPENAK, S.L.	10,37	4,75	27,27	42,39
ERRO KOOP. ELKARTE TXIKIA	10,5	4,52	27,27	42,29
ARAZI IKT, S.L.	9,52	5,5	28,41	43,43
ALDABE KOOP. ELKARTEA	16	5,5	27,80	49,30
IBON CANO GARMENDIA +	8,75	1,47	30	40,22

OIANA  
ORTEGA ARIN

UTE SUHAR ARKEOLOGIA + EÑAUT TOLOSA	12,25	4,5	28,89	45,64
--	-------	-----	-------	-------

Horren ondorioz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabai-proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Igartzako multzo monumentalaren kudeaketa eta ustiaketa ALDABE KOOP. ELKARTEAri esleitzea, baldintza pleguaren eta beraiek aurkeztutako eskaintzaren arabera. Horren ondorioz, hamar laneguneko epean idatzi hau jasotzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Ekonomia jardueren gaineko zergan alta egoeran izatea.
- Bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzari dagozkionak betetzen dituela edo kontratazio Organoari horri buruzko egiaztapena zuzenean egiteko baimena emanaz.
- Zerbitzuari atxikitako langileei Gizarte Segurantzaren alta emanda egotearen agiria.
- 2.697,80 €ko behin betiko fidantza eratzeari buruzko agiria, Balio Erantsiari buruzko Zerga aparte.
- Arrisku profesionalen gaineko aseguru bat izatearen izurtagiria izatea, 610.000 €ko balioa duena.

**Bigarren.** Esleipena prezio honetan egiten da: 53.956,01 € + BEZ urteko.

**Hirugarren.** Egikaritze epeak bi urteko iraupena izango du. Epe hau luzagarria izango da eta urte beteko bi urtealdian gehienez luzatzeko aukera egongo da.

**Laugarren.** Aipatutako dokumentazioa aurkeztu eta gero, behin betiko esleipena egingo da eta horretarako Alkate jaunari baimena ematen zaio. Jarraian, kontratu administratiboa sinatuko da.”

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

### **3.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera zortziak eta hogeitan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.